

## AMA EUSKARA

Zuben anayak izango gera bizitz latzian  
Adierazten dizutet gogoz biyotzetikan,  
Zazpiak eziñ geldi gindezke otzak atzian  
Pozik alegiñ egiñ dezagun Amagatikan;  
Izan liteke negar egiñaz guregatikan  
Arkitutzia, buru makurka baztar batian,  
Korri, mutillak, jarri gaitian denongatikan  
Barkaziyua eskatutzeko bere aurrian.  
Euskaldun denak Ama Euskara maita dezagun  
Ta biyotzetik Jaungoikuari beti eskatu,  
Idukitzeko bere ondoan gau eta egun,  
Bere barrunen gaitzik beñere ez dediñ sartu;  
Ama: betiko izango gera zurekiñ lagun  
Ta guregatik irudimenik ez beza artu.

FELIPE KASAL OTEGI.

---